

elkarbanatuz

txostena 2011

Bulego nagusia
Bilbo

Morgan bidea, 2 A, 3.
Bilbo 48014
Tel.: 944 757 643 – Faxa: 944 750 151
www.elkarbanatuz.org
info@elkarbanatuz.org

Zentroak:
Hiranka

Blas de Otero, 39 (sarrera: Arenaza Leizea)
Bilbo 48014
Tel.: 944 764 136 – Faxa: 944 765 398
hiranka@elkarbanatuz.org

Baikaba

Blas de Otero, 55, etxabea
Bilbo 48014
Tel.: 944 474 499 – Faxa: 944 750 151
baikaba@elkarbanatuz.org

Hazten

Madariaga etorbidea, 81, atzealdea
Bilbo 48014
Tel.: 946 426 447 – Faxa: 944 750 151
hazten@elkarbanatuz.org

Egoitzak

Oinez: Algorta 1: Getxo; Algorta 2: Getxo; Ondoan: Bilbo; Arangoiti: Bilbo; Gerizpe: Barakaldo 1 eta 2; Bidean: Bilbo; Ganeko: Bilbo.

Bidanka: Ollargan, Galdakao, Santurtzi.

Goierri: Bilbo.

Donostia

Madalena Jauregiberri, 2 – Apdo. 851
20080 Donostia / San Sebastian

Inprimatzea: Garcinuño inprimategia
Jon Arrospide, 11 – 2. solairua (48014)
Lege-gordailua: BI-1305/2012



IMPRESO EN PAPEL RECICLADO

Elkarbanatuz

aurkibidea

Eskerrak

02

Aurkezpena

03

Lan-arloa

06

Esku-hartze sozialaren arloa

10

Hezkuntza, haurtzaroa eta familia

14

Nazioarteko lankidetzak

18

Gizarte-eraldaketa

20

Urteko kontuak

22

eskerrak

Esker ona adierazi nahi diegu 2011. urtean lagundu diguten erakunde publiko eta pribatu guztiei:

Kristau Eskoletako Anaiak – FSC

Eusko Jaurlaritza

Enplegu eta Gizarte Saila

Bizkaiko Foru Aldundia

Gizarte Ekintza Saila

Ahaldun Nagusiaren Kabinete Saila

Bilboko Udala

Euskara, Gazteria eta Kirol Saila

Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarrak Saila

BBK

Gizarte Ekintza

La Caixa

Gizarte Ekintza

La Caixa Fundazioa

Victor-Tapia – Dolores Sáinz Fundazioa

Intervida Fundazioa

Bizkaiko Elikagai Bankua

Eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, urte guztian zehar borondatez laguntza eman diguten pertsona guztiei.

Hemen aurkezten dizuegu Elkarbanatuz elkartearen 2011. urteko memoria. Seguru asko, 2011ri buruz argitaratu diren edo argitaratuko diren memoria, urtekari edo antzekoek aipatuko dute, ezinbestean, igarotzen ari garen ekonomia-krisi izugarria; eta aipatuko dute, beti gertatu ohi den bezala, krisi horren jatorrian erantzukizunik batere izan ez dutenak direla krisiaren eragina gehien nabaritzen ari direnak.

Hori dela eta, lehenik eta behin pertsona horietaz gogoratu nahi dugu gure elkartearen 2011ko memoria honen aurkezpenean. Izen-abizendun pertsona horiek jarraitzen dute izaten gure jardueraren lehentasunezko subjektu.

Albiste txarren uholdearen tartean, memoria honek baikortasun pixka bat eskaini nahi du, 2011. urtean gure jarduera zein izan den islatuz.

Izan ere, 2011n nabarmen egin du gora gure elkarteak arreta jarri dien pertsona kopuruak; funtsean, nazioarteko lankidetzako proiektuak izan dira horren arrazoia, proiektu horiek argi-izpi bat izan baitira hemengo pertsona erabiltzaileekin egin dugun lanean ere.

2011n nabarmen areagotu ditugu bitartekaritza-lanerako kontratuak. Urtearen amaierarako, Lanbideren prestakuntza-baliabide bihurtu da Hazten eta, modu horretan, lortu dugu aitorten ofizialeko prestakuntza bat eskaintzea.

Hain zuzen, 2011. urtean mantendu egin ditugu haurrentzat eta familientzat gizarte-hezkuntzako arreta-programak, eta areagotu egin dugu hezkuntza-egoitza parte-hartzeari buruzko proiektu kopurua.

Eta hori guztia lortu dugu pertsona askoren (langileak, boluntarioak, bazkideak, laguntzaileak) eta erakunde askoren laguntzari esker; beren lan, babes eta finantzazioaren bidez lortu dute abesti honek aipatzen dituen tanta horiek izan gaitezen: *"gota sobre gota somos olas que hacen mares"*.

Amaitzeko, nabarmendu nahi dugu elkartearen oinarri sozialarentzat ere urte hau gogoetarako urtea izan dela, eta abenduan iritsi dela gorenera, elkarteko bazkide bakoitzaren eta guztien konpromisoa berrituz gizarte bidezkoago bat eraikitzearen alde lan egiteko, Misión Educativa Lasaliana-ko kide izateko, eta lehentasun gisa izateko hezkuntza eta lana gure gizartean kaltetuenak diren taldeentzat, bereziki gazteentzat.

Inguruko pertsoneri helarazi nahi genieke gure gogo beroa, eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa lortu nahi genuke guztion artean, La Salle ikastetxe-sarea osatzen duten gainerako zentroekin eta gure inguruko gainerako gizarte-erakundeekin batera.


Zuzendaritza Batzordea

nor garen

Elkarbanatuz irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta La Salleko Ekintzen Sareko partaide da. Sare horrek, hain zuzen, esku-hartze sozialaren arloan jarduten du.


Onura publikoaren izendapena jaso dugu, eta partaidetza eta gizarte-erlaketak bultzatzen dihardugu, elkartearen 2009-2012 Plan Estrategikoaren esparruan, gure kode etikoak gidaturik.

Elkarbanatuzek lagundutako pertsona kopuruaren bilakaera azken urteetan



zer egiten dugu

ARLOAK 2011



ZEHARKAKO TALDEAK



lan-arloa

HIRANKA

Hiranka gizarteratze-zentroan, gizarte- eta hezkuntza-arreta integrala ematen diegu ahultasun-egoeran dauden pertsoneri, gizarteratze-prozesuak sustatzea helburu.

Banakako hezkuntza-arreta ematen dugu, pertsona bakoitzaren araberako ezaugarri eta premietan oinarrituta. Horretarako, banakako arreta-plangintzak prestatzen ditugu. Hain zuzen, erabiltzaileek eta talde profesionalak prestatzen dituzte arreta-plangintza horiek, elkarrizketen, azterketen eta egoerari buruzko diagnostikoen bitartez. Gizarte- eta hezkuntza-helburu premiazkoenak zein diren adosten dute, erabiltzaileek bizikaltate hobea izan dezaten. Ondoren, helburu horiek aldizka ebaluatzen dituzte.

Gizarte- eta hezkuntza-arloan banakako esku-hartzeak egiteaz gainera, taldekako prestakuntza-programazio bat lantzen dugu. Hala, tailerrak antolatzen ditugu, honako gai hauen inguruan: gizarte-trebetasunak, informatika, prestakuntza eta enplegua bilatzea, autozaintza, eta abar. Gainera, zenbaitetan, oinarritzko gaztelania-ikastaroak egiten ditugu, gizarteratzean oso garrantzitsua baita hizkuntza ongi ulertzea eta erabiltzea.

Topaguneak eta harremanetarako guneak sustatzen ditugu, baliagarri baitira pertsonen arteko harremanei eta laguntzazko gizarte-sareak sortzeari begira. Halaber, denon partaidetzaz, aisialdirako eta astialdirako jarduerak prestatzen ditugu asteburuetan.

Sentsibilizazio-jarduerak prestatzen ditugu, denon partaidetzaz, gizartea eraldatzeko asmoz. Ildo horretatik, gizarte-bidegabekeriaren arrazoiak agerian jartzen ditugu, eta kulturen arteko bizikidetzak sustatzen dugu.


Gizarte- eta hezkuntza-lan integrala egiten dugunez, gure zentroa erreferentzia-gune bilakatu da laguntza behar duten pertsonentzat. Arreta eskatzen duten pertsona gehienak beren kabuz etortzen dira, eta motibazio handia dute gizarteratze-prozesuan murgiltzeko.

Emaitzak

2011n, gizarte-bazterkeriak jotako 158 pertsonak jaso dute gure arreta. 128 pertsonak eskatu dute zentroan parte hartzea. Joan den urtetik zentroan dauden 30 pertsonak gehitu behar zaizkio kopuru horri. Haietatik 49 pertsonak jaso dute gure arreta (guztira, beraz, 79 pertsonak), eta gizarteratze-prozesuak landu ditugu haiekin. Zentroko plaza guztiak % 100 beteta egon dira urte guztian.



Helburuen ebaluazioa



- Betetako helburuak
- Neurri batean betetako helburuak

AURKIBIDE


Lan-bitartekaritzako zerbitzu bat da; elkarrekin harremanetan jartzen ditu lan bila dabiltzan pertsonak eta langile bila dabiltzan enpresak. Haren helburua da lan-munduan sartzeko laguntzea kalitatezko enplegua lortzeko zailtasunak dituzten edo lanik ez duten pertsonari.

Erabiltzaileek eta talde profesionalak elkarrekin jarduten dute; lan-munduan sartzeko prozesu bat finkatzen dute, erabiltzaile bakoitzaren araberakoa, eta prozesua gauzatzeko helburuak eta jarduera-lerroak zehazten dituzte.



Kudeatutako kontratuak

2010 2011



Enpresekiko bitartekaritza-lana egiten dugu. Zehazki, honetan datza lan hori: lan-eskaintzaren eta -eskariaren arteko bitartekaritza, enpresentzako aholkularitza kontratazio-gaietan, eta banakako jarraipena enpresan.

Emaitzak

Aurten, aurreko urteekin alderatuta, Aurkibide proiektuaren adierazleek nabarmen egin dute gora. 135 pertsonak jaso dute arreta, eta 91 enpresarekin jarri gara harremanetan. Gainera, enpresa horietatik 54 bisitatu ditugu. Azkenik, 22 kontraturen bitartekaritza-lana egin dugu, eta haietako 18k oso emaitza ona utzi dute.

AURKITEGI

Aurkitegi enplegurako prestakuntza-programa bat da. Bi prestakuntza-jardura antolatzen ditugu, giltzarri baitira lan-munduan sartzeko prozesuak laguntzeko tresna gisa.

Batetik, enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza trebetasunen tailerrean, lanpostuen araberako lan-ohiturak, -trebetasunak eta zeharkako ezagutzak lantzen ditugu: lana aktiboki bilatzea, autoezagutza, kontratuak, langileen eskubideak, eta abar.



Bestetik, emakumeak ahalduentzeari buruzko tailerrean, emakumeekiko tratu desberdinari buruzko gaiak lantzen ditugu, bai eta desberdintasun horrek lana bilatzeko orduan zer eragin duen ere. Egoera ikusi ondoren, konponbideak proposatzen ditugu.

Emaitzak

Enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza-trebetasunen tailerrean, 7 emakumek eta 8 gizonak jaso dute prestakuntza. Emakumeak ahalduentzeari buruzko tailerrean, berriz, 7 emakumek parte hartu dute.

lan-arloa

HAZTEN

Gizartean desabantailak dituzten pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko prestakuntza-zentro bat da. Haren helburua da enplegarritasuna hobetzea, eta, horretarako, erabiltzaileek lanbide bat ikasten dute.

Urtero antolatzen ditugu ikastaroak, 300 ordukoak, ostalaritza- eta turismo-arloei buruzkoak, gure ingurunean eskari handiena duten lanbideak baitira. Badugu prestakuntza-modulu bakoitzerako hornidura profesionala eta lekua, eta helburua da moduluetan parte hartzen duten pertsona guztiek ezagutza nahikoa jasotzea, ikastaroa bukatzean, lan-munduan sartzeko.

Ikastaroetan parte hartzen duten pertsonak gaitasun eta jarrera onenak bereganatu ditzaten, talde profesionaleko kideok ahalegina egiten dugu metodologia, pedagogia-tresna eta ikasgai egokienak lortzeko.

Ikastaroak moduluka antolatuta daude:

Jatetxeen moduluko prestakuntza:

- **Jatetxe-zerbitzua**
Zerbitzua martxan jartzea, zerbitzu motak eta fakturazioa.

Hotelen moduluko prestakuntza:

- **Hoteleko logelak txukuntzea**
Hoteletako solairuak behar bezala kudeatzeko lan-tresna eta -metodo berriak azaltzen dizkiegu ikasleei.
- **Arropa garbitzea eta lisatzea**
Garbitze- eta lisatze-prozesua, ehunak bata bestetik bereiztea, ehunak tratatzea, eta makina profesionalen erabilera.
- **Arropa pasaratzea**
Eskuz josteko teknikak eta josteko makina profesionalak behar bezala erabiltzea.

Prestakuntza osagarria:

- **Lan-prestakuntza eta -orientabidea**
Ikastaroetan parte hartzen duten pertsonen egoera zein den kontuan hartuta, modulu hau gehitzea erabaki genuen prestakuntza teknikoaren osagarri gisa. Zehazki, enplegurako beharrezkoak diren zenbait gairi buruzko prestakuntza landu dugu modulu horretan: lan-mundua ezagutzea, arriskuen prebentzioa, autoenplegua, talde-lana eta oinarrizko informatika.



Gure helburua da bi generoetako pertsonak gure zentroan parte hartzea, emakumeak ere lan-munduan sar daitezzen. Izan ere, zenbait emakumek oztopoak izaten dituzte lanpostu bat lortzeko, prestakuntzarik ez dutelako edo zailtasun sozioekonomikoak dituztelako.


2011. urtearen bukaeran, Lanbideren prestakuntza-baliabide bihurtu zen Hazten lana aurkitu aurreko prestakuntzarako zentroa. Horri esker, aintzatespen ofiziala jaso duen prestakuntza bat eskaintzea lortu genuen. 2012an prestakuntza-tailerretan parte hartzen duten ikasleek 1. mailako Profesionaltasun Ziurtagiria jasoko dute, ostalaritza eta turismoa lanbide-taldeari dagokiona.

Emaitzak

Zentroan sartzeko 193 eskaera jaso ditugu; joan den urtean baino 72 gehiago, hain zuzen. Azkenean, 34 pertsonak parte hartu dute prestakuntza-tailerretan; 15 emakumek eta 19 gizonak, hain zuzen. Ikasleen % 82k oso emaitza ona lortu du prestakuntzan.



Zentroan sartzeko eskaeren bilakaera



esku-hartze soziala

EMANTZIPAZIORAKO EGOITZA-BALIABIDEAK

EMANTZIPAZIO-SAREA

Gazte immigranteentzako egoitza-baliabideak dira. Gazte immigrante horiek administrazio publikoaren tutoretzapean egonak dira adin-nagusitasunera iritsi bitartean, eta gizarte- eta hezkuntza-laguntza behar izaten dute heldutasunerako trantsizioan eta gizarteratzean.

Aurten, emantzipaziorako egoitza-baliabideek 36 plaza eskaini zituzten. Alegia, joan den urtean baino 5 plaza gehiago, tutoretzapeko etxebizitza berri bat ireki baikenuen:

- Ondoan egoitza: 5 plaza.
- Bidean egoitza: 5 plaza.
- Gerizpe egoitza: 4 plaza.
- Ganeko egoitza: 5 plaza.
- Oinez egoitza-sarea: 4 egoitza; guztira, 17 plaza.

Emantzipazio-proiektuaren oinarrian, gizarteratzeari buruzko hezkuntza-plangintzak eta Banakako Arreta/ Interbentzio Planak (aurrerantzean, BAPak) daude, erabiltzaileek eta talde profesionalak diseinatuak guztiak ere. Pertsona bakoitzaren egoeraren arabera prestatzen dira, haien asmoak, beharrak eta banakako planteamenduak aintzat hartuta.

BAP honen baitan, oinarritzko jarduera batzuk finkatu dira:

Banakako laguntzarako jarduerak: erabiltzaileei banakako laguntza planifikatu eta koherente bat emateko jarduerak dira. Ikasleek zenbait konpromiso hartzen dituzte arlo hauetan: pertsonaren garapena, pertsonen gaitasunak indartzea, nor bere prozesuan inplikatzeko eta, azken batean, autonomia handiagoa lortzea.

Egoitza-laguntzarako jarduerak: emantzipazio-prozesuan dauden pertsonen etxebizitza- eta bizikidetzako egoera duina eta nahikoa lortzeko jarduerak.

Lan-munduan sartzeko jarduerak: lan-munduan modu eraginkor batean sartzeko beharrezkoak diren jarduerak, ezagutzak eta prozedurak lantzen dira erabiltzaileekin batera.



esku-hartze soziala

Egoitza-baliabideek Mundutik-Mundura proiektuaren atal bat osatzen dute. Hain zuzen, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak sustatzen du proiektu hori. Esku-hartze sozialeko proiektua garatzeko oinarritzko gakoetako bat da sare-lana, oso garrantzitsua baita proiektuan parte hartzen duten elkarte guztiak elkarrekin koordinatuta egotea, inongo trabarik gabe, gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko esparru komun bat eraiki dezagun denon artean.


Gure esku-hartzeetan, zenbait dinamika lantzen ditugu gazteek beren gizarteratze-prozesuan eta egokitu zaien proiektuan parte har dezaten. Lan hori egiteko, batetik, proiektuaren plangintza eta ebaluazioa egiten dugu hezitzaile-taldearekin batera, eta, bestetik, sentsibilizazioari eta gizarte-eraldaketari buruzko tailerrak antolatzen ditugu, gogoeta pertsonala eta kritika eraikitzaileko gaitasuna sustatzeko asmoz.

Emaitzak

2011n, 73 pertsonak jaso dute, guztira, gure arreta; gainera, haietatik 30ek gurekin jarraituko dute 2012an ere.

Helburuen ebaluazioa

■ Betetako helburuak ■ Neurri batean betetako helburuak ■ Bete gabeko helburuak



esku-hartze soziala

BAZTERKERIAK JOTAKO PERTSONENTZAKO EGOITZA-BALIABIDEAK

BIDANKA

Gizarte-bazterkeriak jotako edo gizarte-bazterkerian erortzeko arriskuan dauden pertsoneri begira eratu da egoitza-baliabideen sarea. 18 eta 60 urte bitarteko pertsonak izaten dira. Pertsona horiei ostatu hartzeko eta bizikidetzarako aukera ematen diegu, gizarte- eta hezkuntza-ingurune batean. Era horretan, pertsonak gai izaten dira beren bizi-proiektua definitzeko eta planifikatzeko.



Baliabide horiek erabiltzen dituzten pertsonak ez dute bizitzeko merezitako tokirik izaten, edo ez dute egonkortasunik izaten beren etxeetan. Azken batean, gizarte-ahultasuna bizi dute alde askotatik, eta, ondorioz, egoitza-baliabide bat behar dute gizarteratze-ibilbidean aurrera egiteko. 12 plaza eskaintzen ditugu guztira, 3 etxetan banatuta, eta 4 lagun sartzen dira etxe bakoitzean.




Baliabide guztietan, hasierako diagnostikoa egiten dute talde profesionalak eta erabiltzaileek, eta guztion artean zehazten dute Banakako Arreta/Interbentzio Plana (BAP). Plan horretan, erabiltzaileek etxean egon bitartean lortu beharreko helburu eta xedeak finkatzen dira. Horretarako, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze bat lantzen dugu, integrala eta banakakoa.

Garrantzitsua da, halaber, pertsona horiekin egiten dugun sentsibilizazio-lana. Helburua da pertsona horiek zenbait jarduera eta ekitalditan parte hartzea, pentsamendu eraldatzaile bat garatu dezaten. Ildo horretan, zenbait tailer antolatu ditugu gizarte-boluntariora sustatzeko eta erabiltzaileek lantegi horrekiko motibazioa izateko. Horretaz gainera, egoitza erabili duten pertsonen autonomia sendotzen jarraitu dugu, bai banakoaren mailan, bai taldearenean.

Baliabide-sarea Aldebarán deritzon programaren baitan dago 2008ko urriaz geroztik. Gizarte-bazterkeriari buruzko programa bat da, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak sustatua.

Emaitzak

2011n, 25 pertsonak jaso zuten gure arreta. Gaur egun, haietatik 12 gure artean daude oraindik.



esku-hartze soziala

GOIERRI

Intentsitate txikiko egoitza-baliabide bat da. Alegia, etxebizitza-premia duten pertsona helduentzako behin-behineko egoitza bat da. Egoitza erabiltzen duten pertsonen gizarte-egoerak hobera egin du, eta baliabide nahikoa lortu dute bizitza autonomo bati ekiteko. Nolanahi ere, zailtasunak dituzte etxebizitza bat lortzeko. Hala, egoitzak erabiltzaileen oinarrizko beharrak asetzen ditu, eta haien garapen pertsonala laguntzen.

Zerbait berritzaileagoa egin nahian, erabiltzaileek gizarte- eta hezkuntza-prozesu batean parte hartzen dute, banaka eta taldeka, haiekin bizi den boluntario baten laguntzaz. Horretaz gainera, hezitzaile batek hezkuntza-arloko jarraipen-lana egiten du. Haiekin bizi den boluntarioak etxebizitza eta bizimodua partekatzen du erabiltzaileekin, eta erreferente bihurtzen da.

Hezitzaileak gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzerako plangintza bat egiten da erabiltzailez erabiltzaile. Banakako plangintza horretan, erabiltzaileek eta hezitzaileek parte hartzen dute: autonomia pertsonala lortu nahian, oinarrizko eskubideak bermatzeko egoerak bilatzen dituzte, eta gizarte-partaidetza bultzatzen eta sustatzen dute.

Etxebizitza bat izateko arazoa bete-betean bizi dute gure egoitzara etortzen diren pertsonak, gizarte-bazterkeriak joak baitira. Hala, zenbaitetan, ezinezkoa izaten da etxebizitza bat lortzea, pertsona horiek ez baitute ez baliabide pertsonalik, ez ekonomikorik. Hori dela eta, elkartearen beste egoitzetan bezala, pertsona horiek sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea sustatzen dugu, gogoeta egin dezaten etxebizitza bat izateko zailtasunen arrazoien gainean, eta arrazoi horiek sala ditzaten.

Proiektuaren balioespina oso ona izan da; izan ere, gizarte- eta hezkuntza-prozesuei eta boluntarioarekiko bizikidetzari esker, erabiltzaileek baliabideak lortzen dituzte etxebizitza bat izateko. Horretaz gainera, pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako jardueretan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute.

Emaitzak

2011n, 3 pertsona hartu ditugu Goierrri egoitzan, eta haietatik 2 egoitzan egongo dira 2012an ere.



hezkuntza, haurtzaroa eta familia

FAMILIA ETA HAURTZAROENTZAKO ARRETA

BAIKABA

Baikabazentroak gizarte-eta hezkuntza-arreta integrala eskaintzen die haur eta familiei, jakintza-arlo askotako profesionalen talde baten bitartez. Erabiltzaileei laguntza emateko, honako baliabide hauek erabiltzen ditugu: programa hezitzaileak, aholkularitza, partaidetza, eta ardurak elkarrekin partekatzea. Gizarte- eta hezkuntza-arreta banaka zein taldeka bideratzen dugu familia eta haur guztiekin. Hezkuntza-laguntzarako, eta aisialdirako eta astialdirako jarduerak prestatzen ditugu, astero, hurrekin. Udan, bestalde, hiri-udalekuak antolatzen ditugu. Familia barneko loturak sendotzen laguntzeko, gurasotasun onuragarriari, autoestimuari eta autoezagutzari buruzko tailerrak eskaintzen ditugu. Horretaz gainera, familientzako aisialdi- eta astialdi-irteerak ere antolatzen ditugu.

Baikabako hezitzaile-taldeak Oinarriko Gizarte Zerbitzuekin, Gizarte eta Hezkuntza Arloko Esku Hartzerako Zerbitzuekin (EISE) eta inguruko ikastetxeekin koordinatuta lan egiten du.


Haur eta familia bakoitzak lan-plangintza bat izaten du. Plangintza horretan, denek batera parte hartzen dute, eta honako alderdi hauek lantzen dira: pertsonalak, bizikidetzari buruzkoak, ekonomikoak, gizarte- eta osasun-arlokoak, eta sozialak. Erabiltzaileek eta zentroko talde profesionalak ebaluatu egiten dute plangintza, aldizka.

Partaidetza-guneak eskaintzen ditugu. Jarduera bakoitzak gizarte-gai bat izaten du zeharka, herritar multzo global bat eraikitzea baita helburua.

Familiei arreta integrala emateko, bi proiektu ditugu: **Hirabai** (oinarrizko premiak asetzera bideratua, hala nola elikadura eta alokairua) eta **Lotunea** (familiaren astialdia eta aisialdia lantzeko proiektua).

Emaitzak

2011n, 205 pertsonak jaso dute gure arreta; emakumeak dira haietatik 130, eta gizonak, berriz, 75.



Laguntzak eta egindako zerbitzuak

- Udalekuak
- Haurren garbitasuna
- Elikadura
- Eskolako hornikuntza
- Hezkuntza-laguntza eta Zentro Irekia
- Alokairua

hezkuntza, haurtzaroa eta familia

IZARTXO BILBAO

Izartxo Bilbao programak La Salle ikastetxean gizarte- eta hezkuntza-lana egiten duten taldeak koordinatzen ditu: Txintxirrin, Egunsentia eta Tandanacui. Noizean behin, talde bakoitzeko ordezkariak koordinatzailearekin biltzen dira. Bileron helburua da jarduera guztiek La Salleren hezkuntza-misioa betetzea eta elkarrekin jarduerak egitea noizean behin.

Urtean zehar proiektuaren ebaluazioa egin dugu. Hala, Izartxo Bilbao proiektuaren gizarte- eta hezkuntza-eskaintzan parte hartzen duten eragile zenbaitek parte hartu dute ebaluazio horretan. Aurten ere, La Salleko astialdiko begirale izateko prestakuntza eskaini eta sustatu dugu. Gainera, Elkarbanatuzek ikastetxearen SEIN lankidetzatik ikaskuntzako proiektuan parte hartu du.

TXINTXIRRIN



Txintxirrin taldeak aisialdi eta astialdi hezitzaileerako aukerak eskaintzen ditu, larunbat arratsaldeetan, ikasturtean zehar. Jardueretan parte hartzea ez da nahitaezkoa, baina haurrak erregularitasunez etortzen dira joko, dinamika, tailer eta txangoetan parte hartzera. Astialdirako begirale-talde batek antolatzen ditu guztiok, Elkarbanatuz elkarteko hezitzaile baten laguntzaz.

Jarduera horien bitartez, haurrek ongi pasatzea eta aisialdi-astialdi osasungarri batez gozatzea lortu nahi dugu; betiere, La Salleren balioetan oinarrituta. Adinari dagokionez, 8 eta 18 urte arteko gazteekin aritzen gara. Adinaren eta gazteen kezken arabera prestatzen ditugu jarduerak.



Emaitzak

Txintxirrin taldeko begirale-taldean, 14 begiralek jardun dute lanean; haien dinamizatu dituzte jarduera guztiak, eta 56 gaztek parte hartu dute, guztira. Izartxo Bilbao programan, berriz, 120 haurrek baino gehiagok parte hartu dute.



hezkuntza, haurtzaroa eta familia

GIZARTE-PARTAIDETZA

BOLUNTARIOTZA

Urtean zehar Elkarbanatuz elkarteak zenbait ekintza prestatu eta haietan parte hartu du, boluntarioen lana aintzateste aldera. Ildo horretan, partaidetzarekin lotuta dauden balioak gizarteratzen saiatu gara, hala nola elkartasuna, talde-lana, doakotasuna, lankidetzeta, eraldatzea, konpromisoa eta gizarte-erantzukizuna. Aurten, Boluntariotzaren Europako Urtea izan da, eta horrek ere gure ahalegina sendotu egin du.

Boluntariotza Batzordeak babestutako ordezkari batek eta Boluntariotza Taldeak boluntarioen taldea kudeatzen dute. Jarduerak prestatzen ditugu, hala nola elkarteko boluntariotzaren urteroko topaketa. Topaketa horretan, prestakuntza-saioak, eta ezagutza- eta aintzatespen-jarduerak izaten dira, eta senidetasunezko bazkari bat egiten dugu.

BIKOTEKA

Boluntariotza-proiektu bat da. Hizkuntzak ikasteaz eta praktikatzearaz gainera (gaztelania, euskara), hainbat jatorri eta identitatetako pertsonak elkartzen dira, elkarrekin hizketan aritzeko, elkar entzuteko eta, azken batean, elkartzeko. Saio partekatu horiei esker, estereotipoak eta aurreiritziak beste modu batera kudeatzea eta gainditzea lortzen dugu. Hala, elkarriketaren eta elkar entzutearen bitartez, aniztasunaren aberastasunaz eta besteen esperientziez jabetzen gara; alegia, pertsonekin topo egiten dugu, ez "etiketekin". Enpatiaren sentimendua lantzen dugu, eta, horri esker, ohiko hedabideetatik jasotzen dugunaz bestelako informazioa eskuratzen dugu. Kulturen arteko topaketari esker, berdintasunezko gizarte bat eraikitzeke tresnak eskuratzen ditugu.




Emaitzak

Aurten, batez beste 60 boluntariok jardun dute gurekin, elkartearen proiektuetan laguntzen.

Ekarpen handia zein txikia egin, Elkarbanatuz elkartearen misioan eskuzabaltasunez laguntza ematen duten pertsona guztiek merezi dute gure esker ona eta miresmena, lan ona egin baitute. Eskerrik asko guztiagatik. Urte askoan elkarrekin lan egiten jarraitzea espero dugu.

Boluntarioen datuak



hezkuntza, haurtzaroa eta familia

VI. JARDUNALDIAK

Abenduaren 20an, Elkarbanatuz elkartearen VI. jardunaldiak izan ziren, "Eskola-uztea ekiditeari begirada bat" izenburupean. Bilboko Bidarte udal-zentroan izan ziren saioak, eta helburua izan zen gogoetarako gune bat sortzea, batetik, eskola-uzteari buruz hausnartzeko, eta, bestetik, ohartzeko zer garrantzitsua den koordinazioa eta sare-lana sendotzea eskola-uzteari aurre hartzeko.

Paz Martínez Irakas Sistema Ebaluatzeko eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI) ordezkariak eskola-porrotaren eta eskola-uzte goiztiarraren inguruko datuak eman zizkigun; Euskadikoak, Espainiakoak eta Europakoak, hain zuzen. Ondoren, Bilboko Caritaseko kide Marian García Kometa gizarte- eta hezkuntza-sarea aurkeztu zuen. Sare horrek, hain zuzen, hezkuntza-laguntzaren arloan lan egiten du, haur eta familientzako arreta integralaren esparruan.

SENTSIBILIZAZIOA

Gizarte-bidegabekeriak hausnarketa egiteko asmoz, zenbait sensibilizazio-jarduera antolatu ditugu, gure inguruko haur, gazte zein helduentzat. Batik bat, auzoko ikastetxeetako ikasleekin, La Salleren ikastetxeetako irakasleekin, Elkarbanatuz elkarteak langileekin eta erabiltzaileekin jardun dugu.

Bestalde, Kulturen Arteko Kirol Topaketa antolatzen dugu urtero, elkarrekiko loturak sendotzeko, kide izatearen sentimendua pizteko, eta gure lanaren gaineko kontzientzia zabaltzeko. Hala, "Mundialtxo"ra gonbidatzen ditugu gure elkarte osatzen duten eta hartatik gertu dauden pertsona guztiak. 350 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute, urte gutxian zehar, jarduera horietan.

Komunikazioa

Gure ustez, komunikazioa sensibilizatorako tresna bat da; horrenbestez, gure tresna guztiak helburu hori betetzera bideratuta daude.

Elkarbanatuz buletina: gure lana ezagutarazteko eta gure inguruko errealitateen inguruko sensibilizazioa lortzeko hilaletakaria.

Webguneak:

- <http://www.lasallebilbao.com/>
- <http://lasalle.es/ednoformal/>
- <http://elkarbanatuz.org>
- <http://www.facebook.com/elkarbanatuz>
- <https://twitter.com/#!/elkarbanatuz>



nazioarteko lankidetzaz

ELKARBANATUZ ELKARTEAREN ETA PROYDE-PROEGA FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Hitzarmena indarrean da oraindik ere. Haren helburua da, hain zuzen, elkarrekin lankidetzan jardutea herrialde pobretuetako garapen-proiektuetan, honako arlo hauetan: hezkuntza, sentsibilizazioa, eta proiektuen plangintza, koordinazioa eta martxan jartzea. Hitzarmenaren barnean, honako proiektu hauetan parte hartu dugu:

TOGO

“Togoko hegoaldeko gazteen hezkuntza laguntzeko proiektua”

Proiektuaren helburua izan da Togoko hegoaldeko itsasaldeko landa-eremuetako gazteen bizi-baldintzak hobetzea, kalitatezko eta neska-mutilentzako berdintasunezko hezkuntza eskaintzearen bitartez.

Horretarako, Togovilleko La Salle ikastetxeak bidalitako premien eta proposamenen zerrenda aztertu genuen. Notre Dame du Lac bigarren hezkuntzako ikastetxeak eta Saint Augustin lizeoak osatzen dute Togovilleko ikastetxea.

Togoko landa-eremuetako gazteek hezkuntza-sisteman sarbidea izan dezaten, ikasketa-bekak eman dizkiegu egoera ekonomiko txarrean dauden familietako ikasleei.

Ikastetxeko instalazioak eta ikastetxean aritzen diren pertsonen segurtasuna hobetu dira, hainbat arlotan. Batetik, erabilera anitzeko aretoa eraberritu eta handitu dugu. Sentsibilizazio-, kultura- eta jolas-jarduerak egiteko erabiltzen da areto hori, hain zuzen. Bestetik, jolastokiko eskubaloi-zelaia txukundu dugu. Ikastetxeko neskatoek gehien erabiltzen duten eremua da.



Emaitzak

500 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute proiektuan. Bestalde, 79 beka eman ditugu (36 neskari eta 43 mutili), eta erabilera anitzeko aretoa eta eskubaloi-zelaia handitu eta eraberritu ditugu.

GUATEMALA

Proyde-Proega lankidetzaz-partzuergoaren bitartez, proiektu hauetan parte hartu dugu: “Herri indigenetan eskubide ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak (DESCA) eskatzeko oinarriak sustatzea eta ezartzea” eta “Prestakuntza politikoko eskola emakumezko lider indigenentzat: generoen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia”. PRODESSA elkarteak (Santiagoko garapen-proiektua) bultzatuak dira biak ere, bertatik bertara.



nazioarteko lankidetzeta

MAROKO

Hiru urtez aritu gara Marokon lanean eta hango errealitatea ezagutzen, baita kideko erakundeekiko bilerak egiten ere; Tanger hirian jardun dugu, zehazki, migrazio-prozesu askoren igarobide baita. Aurten, lankidetzeta-proiektu bat martxan jarri dugu herrialde horretan.



Lehentasuntzat jo dugu desabantaila sozialak dituzten edo desabantailak izateko arriskuan dauden pertsonekin lan egitea. Hala, Chifae elkartearen lanean parte hartzea erabaki genuen, Tangerko Bir-Chifae auzoan garapena eta prestakuntza lantzerantz bideratua dena.

Proiektu horren helburua da auzoaren garapenean ekarpen bat egitea, eskola-uzteari aurrea hartuz eta herritarrei lan-munduan sartzeko laguntza emanaz. Halaber, herritar guztiek erabakietan modu aske eta esanguratsu batean parte hartzea sustatzen da.

Herritarrek bizimodu duin bat izatea sustatzeko eta auzoak garapen iraunkor bat izateko, honako ekintza hauek abiarazi ditugu:

- **Eskola-laguntza**

Hezkuntza-neurriak aplikatu ditugu lau eskolatan, helburu harturik lehen hezkuntzako eskola-uzteen kopurua murriztea.

- **Aisialdi hezitzailea eta osasungarria sustatzea**

Aisialdi eta astialdi osasungarria eta partaidetzakoa sustatzeko jarduerak, balioetan oinarritutako hezkuntza kontuan hartuta.

- **Lan-munduan sartzeari buruzko tailerrak**

Informatika, jostuntza- eta ostalaritza-prestatzearen bitartez.

- **Lan-esparruak**

Elkarbanatuz elkarteko zenbait erabiltzaile eta boluntario auzo horretara joan ziren, ekintzak martxan jartzen dituzten hezitzaile-taldearekin batera lan egitera. Horri esker, parte-hartzaileek gertutik ezagutu dute auzoaren eta herrialdearen egoera, eta kontzientzia hartu dute elkarrekiko lankidetzaren beharraz, ezinbestekoa baita giza eskubideekiko begirunea eta herritarren kontzientzia global bat lortzeko.

- **Sentsibilizazio-jarduerak**

Herritarrak herritarren hezkuntzari buruz sentsibilizatzea da helburua.



Emaitzak

2011. urtean zehar, guztira 390 pertsona izan dira proiektuaren onuradun. Lehen Hezkuntzako 320 haurrek jaso dituzte hezkuntzako laguntza-eskolak. 56 pertsonak jaso dute prestakuntza lan-munduan txertatzeko lantegietan. Eta 14 pertsonak parte hartu dute bertatik bertarako lanean.

gizarte-eraldaketa

Gure plan estrategikoari, misioari eta balioei jarraituz, gaur egungo errealitatea eraldatzearen alde lan egiten dugu, bidegabekeria ugari baitago. Halaber, pobreziaren, gizarteko desberdintasunen eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan dihardugu. Gure zeregina betetzeko, gizarte- eta hezkuntza-prozesuak, sentsibilizazio-ekimenak eta gizarte-bidegabekeriako egoerak salatzen dituzten ekintzak antolatzen ditugu, giza eskubideen eta berdintasun-harremanen defentsaren ikuspuntutik.

Urtean zehar gogoetarako guneak sortu ditugu, gizarte-eraldaketan egiten ditugun jarduerak hobetzeko asmoz. Izan ere, gure helburua da gure jarduera guztietan txertatzea eraldaketaren kontzeptua. Badakigu jakin etengabe aldatzea eta egokitzea eskatzen duela apustu horrek.

Oso garrantzitsutzat jotzen dugu prestakuntza jarraitua bultzatzea, bai langileentzat, bai erabiltzaileentzat, bai bazkideentzat, bai boluntarioentzat, bai elkartetik hurbil direnentzat. Horregatik, sentsibilizazio- eta hezkuntza-jarduerak prestatzen ditugu, tokiko eta munduko errealitateari buruz gogoeta egiteko, aniztasunarekiko bidezkoagoa, zuzenagoa eta adeitsuagoa izango den mundu bat eraikitzeke tresnak sortze aldera..




gizarte-eraldaketa

Elkarbanatuz elkartean, funtsezkotzat jotzen dugu sare-lana, ezinbestekoa baita bidegabekeriak dakartzaten egiturak errotik aldatzeko, esperientziak elkarrekin trukatzuz eta proiektu eta ekimenak elkarrekin landuz.

Parte hartzen jarraitzen dugu kide garen sare hauen zuzendaritza-batzordeetan, lan-taldeetan, batzarretan, kanpainenetan, ekimenetan, eta abarretan:

EAPN Euskadi, FIARE, Harresiak Apurtuz, Gizardatz, Beste Bi, Pobreza Cero, La Salle Sarea, La Salleko ekintza sozioedukatiboen koordinakundea, Kometa.



urteko kontuak

ELKARTEAREN URTEKO KONTUAK (2011)

Elkartearen 2011ko kontuak aurkeztuko ditugu. Kontuak egiteko, hain zuzen, indarrean dauden kontabilitate-printzipioak eta -arauak aplikatu ditugu. Haiei jarraituz, eta informazioa ematea helburu, 2010eko ekitaldiko urteko kontuak ere aurkeztuko ditugu, bi ekitaldietako datuak alderatu ahal izateko.

EGOERAREN BALANTZEA ABENDUAREN 31n (eurotan adierazita)

AKTIBOA	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia	PASIBOA	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
IBILGETUA	71.177,92	71.779,56	FUNTS PROPIOAK	77.967,28	76.417,17
II. Ondasun ibilgetu ez-materialak	200,41	345,21	V. Soberakina	76.417,17	89.230,41
IV. Ondasun ibilgetu materialak	44.802,00	46.808,84			
Eraikuntzak	9.392,82	8.222,37			
Beste ibilgetu material batzuk	35.409,18	38.586,47	VI. Ekitaldiaren soberakina	1.550,11	-12.813,24
V. Finantza-ibilgetuak	26.175,51	24.625,51			
D) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	204.027,67	245.284,11	E) EPE MOTZERAKO HARTZEKODUNAK	197.238,31	240.646,50
III. Jardueraren erabiltzaileak eta zordunak	13.353,14	38.371,02	II. Kreditu-erakundeekiko zorrak	85.583,52	98.502,73
IV. Beste zordun batzuk	145.209,54	75.657,45	V. Hartzekodun komertzialak	59.930,08	79.916,32
Administrazio publikoak	145.209,54	75.657,45			
			VI. Beste zor ez-komertzial batzuk	44.119,71	38.227,45
			Administrazio publikoak	44.119,71	38.256,01
VI. Diruzaintza	43.074,21	127.755,73	Ordaindu gabeko ordainsariak	0,00	-28,56
VII. Periodifikazio-doikuntzak	2.390,78	3.499,91	VII. Periodifikazio-doikuntzak	7.605,00	24.000,00
OROKORRA, GUZTIRA	275.205,59	317.063,67	OROKORRA, GUZTIRA	275.205,59	317.063,67

GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUAK, ABENDUAREN 31n

ZOR	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia	HARTZEKO	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
A) GASTUAK	1.365.273,92	1.305.809,35	B) DIRU-SARRERAK	1.372.916,36	1.298.312,16
			Entitatearen jarduera propioen ondoriozko diru-sarrerak	1.372.916,36	1.298.312,16
Diru-laguntzak eta bestelakoak	50.491,20	46.504,00	Bazkide eta erabiltzaileen kuotak	127.967,29	78.018,23
Langile-gastuak	826.958,81	805.862,42	b) Kolaboratzaileen ekarpenak	8.450,00	6.950,00
Amortizazio kopuruak Ibilgetua	12.243,63	9.527,52	c) Ekitaldiaren emaitzari gehitutako diru-laguntzak	1.138.999,07	1.115.843,93
Errentamenduak eta kanonak	165.496,33	122.340,30	d) Zerbitzuak ematea	97.500,00	97.500,00
Beste gastu batzuk	310.083,95	321.575,11			
I. USTIAPENAREN EMAITZA POSITIBOA	7.642,44		I. USTIAPENAREN EMAITZA NEGATIBOA		7.497,19
Finantza-gastuak eta asimilatutako gastuak	6.092,33	5.316,05			
II. EMAITZA FINANTZARIO POSITIBOAK			II. EMAITZA FINANTZARIO NEGATIBOAK	6.092,33	5.316,05
III. OHIKO JARDUEREN EMAITZA POSITIBOAK	1.550,11		III. OHIKO JARDUEREN EMAITZA NEGATIBOAK	6.092,33	12.813,24
IV. OHIZ KANPOKO EMAITZA POSITIBOAK			IV. OHIZ KANPOKO EMAITZA NEGATIBOAK		
V. ZERGEN AURRETIKO EMAITZA POSITIBOAK	1.550,11		V. ZERGEN AURRETIKO EMAITZA NEGATIBOAK		12.813,24
EKITALDIKO SOBERAKIN POSITIBOA (AURREZKIA)	1.550,11		EKITALDIKO SOBERAKIN NEGATIBOA		12.813,24

urteko kontuak

PROIEKTUEN KOSTU ERREALA ETA GASTU OROKORRAK

Elkartearen kostu ekonomikoa "kostu erreal" baino pixka bat baxuagoa da, honako arrazoi hauek direla eta:

- Hiru pisu uzten dizkigute dohainik; pisu horietan garatzen dira, hain zuzen ere, Ondoan eta Bidean proiektuak.
- Langileak. Izan ere, kontuan hartu behar da borondatez lan egiten dutenen eskuzabaltasuna (lagun egiteko, administrazio- eta kontabilitate-lanak egiteko, plangintza estrategikoa prestatzeko, ordezkari-lana egiteko, koordinazioa...). 550 orduko lana egiten dutela kalkulatu dugu, gutxi gorabehera.
- Elikadura, Bizkaiko Elikagaien Bankuak emandako elikagaiei esker.

BOLUNTARIOTZARI ETA DIRUZKOAK EZ DIREN EKARPENEI DAGOKIEN KOSTU-HAZKUNTZA ZENBATETSIA

Alokairuak eta kanonak (1)	21.600,00
Janaria, garbiketa-tresnak eta beste batzuk (2)	1.400,00
Langile-gastuak (3)	7.800,00
GUZTIRA	30.800,00

(1) Pisu bakoitzeko, hileko 600€-ko alokairua kalkulatu dugu (2 Ondoan proiekturako, eta 1 Bidean proiekturako).

(2) Bizkaiko Elikagai Bankuak emandako elikagaiek 1400€-ko balioa dutela zenbatetsi dugu.

(3) Langile-gastuak: urteko 550 ordu gutxi gorabehera.

Datu horiek aintzat hartuta, hona hemen kostu errearen xehetasunak:

	Kontabilitate-datuak (2011)	Boluntariotzaren eta espezie-ekarpenen balioespena	KOSTU ERREALA (2011)
Diru-laguntzak	50.491,20		50.491,20
Langile-gastuak	826.958,81	7.800,00	834.758,81
Amortizazio kopuruak	12.243,63		12.243,63
Kanpoko beste zerbitzu batzuk	469.487,95	23.000,00	492.487,95
Finantza-gastuak	6.092,33		6.092,33
GASTUAK, GUZTIRA	1.365.273,92	30.800,00	1.396.073,92
2011ko emaitza	1.550,11	-30.800,00	-29.249,89


Datu horiek kontuan hartuta, proiektu guztien kostu erreal honako hau izango litzateke ekitaldiko emaitzan: -29.249,89 €.

urteko kontuak

KOSTU ERREALAREN FINANTZIAZIO-ITURRIAK

Bukatzeko, 2011. urtean kostu errealean parte hartu duten finantziazio-iturri guztiak zehaztuko ditugu, eta guztirakoarekiko zer pisu duten adieraziko dugu.

- Erakunde publikoen diru-laguntzak
- Erakunde pribatuen diru-laguntzak
- Boluntarioria
- Espezie-ekarpenak
- Laguntzaileak
- Pertsona erabiltzaileak
- Bazkideak
- Zerbitzuak ematea
- Beste batzuk



KONTU-IKUSKATZEAK

Zenbait kontu-ikuskatzetan, Elkarbanatuz elkartearen kontuak berrikusten dira, gure urteko kontuen gardentasuna bermatzeko eta gizartean zenbateko eragina lortzen duten neurtzeko. Aldizkako kontu-ikuskatze horiek tresna aparta dira etengabeko berrikuntzarako prozesuak lantzeko eta martxan jartzeko.

Dokumentu hauek elkartearen eta haren finantza-emaitzen irudi sendoa eta fidagarria bermatzen dute.

REAS SAREAREN KONTU-IKUSKATZE SOZIALA: Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearen (REAS) kontu-ikuskatze sozialari esker, 2011n, gure elkartearen eraginkortasun soziala eta helburuekiko jokabide etikoa ebaluatu genituen, gizarteari begira lortutako emaitza solidarioak aurrerantzean hobetzeko asmoz.

KONTU-IKUSKATZE EKONOMIKOA: A-Zeta Consultores taldeak gure urteko kontuak ikuskatu ditu, eta baietsi du elkartearen finantza-egoerak irudi fidagarria ematen duela.

BATZORDE ETIKOAREN TXOSTENA: Elkarbanatuz-eko Etika Batzordeak txosten bat egiten du urtero, diagnostiko bat eginez Elkartearen Etika Kodea sartzeari buruz.

